



**UDAL LEGE BATEN ALDEKO EUSKO  
ALKARTASUNAREN MOZIOA  
ARETXABALETAKO UDALBATZARREAN  
EZTABAIDATZEKO**

Egungo krisi ekonomikoaren ondorio zuzenak udaletxeetan nabaritzen ari dira bereziki. Egungo krisi egoera eta foru zein udal ogasunen diru-bilketaren jaitsiera direla-eta, Udal Lege bat adostea inoiz baino premiazkoagoa da orain Udalen eskuduntzen esparrua argitzeko eta, batik bat, Udalek herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuen finantziazio egonkorra bermatzeko. Are gehiago egoera honetan, krisiaren ondorioz udal arloetan gizarte-zerbitzuen eta prestakuntzen eskaria gero eta handiagoa denean, eskuduntzaren titularra zein den alde batera utzita, herritarrek udaletara, hurbilen dituzten erakundeetara, alegia, jotzen dutelako.

Hau guztia dela-eta, Udalbatzarrak honako akordio hau har dezala proposatzen dugu:

1.- Udal honek gogora ekartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko sistema instituzionala euskal herritarren ordezkariak duten erakundeek osatzen dutela eta hauek hiru mailatan antolatzen direla: erakunde komunak, foru organoak eta udal instituzioak.

2.- Udal honek eskatzen du maila instituzional bakoitzari dagozkion eskuduntzen banaketa, jarduera eta finantziazio-bideak argi daitezela.

3.- Udal honek aldarrikatzen du udalerriek Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan egon behar dutela, Kontzertu Ekonomikoaren kudeaketaren bitartez lortzen den diru publikoa hiru maila instituzionalen artean banatzeko hartzen diren erabakietan parte hartzeko aukera izan dezaten.

4.- Udal honek Udal Lege baten beharra aldarrikatzen du, udalak euskal sare instituzionalaren barruan behin-betiko eta legez egon daitezela ahalbidetzeko.

5.- Udal honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurreko puntuetan jasotako eskariei erantzuna emango dien Udal Lege Proiektu bat ahalik eta lasterren Legebiltzarrari igorri diezaiola bertan eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onartzeko.

**MOCIÓN DE EUSKO ALKARTASUNA EN  
FAVOR DE UNA LEY MUNICIPAL PARA SU  
DEBATE EN EL PLENO DEL  
AYUNTAMIENTO DE \_\_\_\_\_**

Las consecuencias directas de la actual crisis económica se están haciendo sentir de manera especial en los Ayuntamientos. La actual coyuntura de crisis económica y el descenso de la recaudación de las haciendas forales y municipales hacen hoy más urgente que nunca la aprobación de una Ley Municipal que clarifique el ámbito competencial de los Ayuntamientos y, sobre todo garantice la financiación estable de los servicios que prestan a sus vecinos. Sobre todo en momentos de como los actuales en los que las consecuencias de la crisis originan una mayor demanda de servicios y prestaciones sociales en los ámbitos municipales que, con independencia del titular de la competencia, la ciudadanía reclama a los Ayuntamientos como instituciones más próximas.

Por estas razones proponemos la adopción del siguiente acuerdo por parte del Pleno del Ayuntamiento:

1.- Este Ayuntamiento recuerda que el sistema institucional de la Comunidad Autónoma del País Vasco está compuesto por instituciones representativas de la ciudadanía vasca organizadas en torno a tres niveles de ordenación: instituciones comunes, órganos forales e instituciones municipales.

2.- Este Ayuntamiento reclama que debe procederse a la clarificación en la asignación de competencias a cada nivel institucional, su desempeño y sus vías de financiación correspondientes.

3.- Este Ayuntamiento defiende que los municipios deben formar parte del Consejo Vasco de Finanzas Públicas para poder participar en las decisiones que se tomen con respecto a la distribución entre los tres niveles institucionales de los fondos públicos provenientes de la gestión del Concierto Económico.

4.- Este Ayuntamiento entiende que se necesita una Ley Municipal que posibilite el encaje legal definitivo de las instituciones municipales en el entramado institucional vasco.

5.- Este Ayuntamiento insta al Gobierno Vasco a que, en el plazo más breve posible, remita al Parlamento para su debate y aprobación un proyecto de Ley Municipal que de respuesta a las demandas expuestas en los epígrafes anteriores.